

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO

Komunikazio eta banaketa kanalean zenbait fase aurki ditzakegu:

- **Komunikazio-kanala:** gure komunikazio-kanala interneta, eta enpresaz-enpresa pasako diren boletinak, ziurtatzeko denek gure berri jakin dutela.
- **Banaketa-kanala:** banaketa guk erabiliko ditugun kamioi, edo kotxe bereziekin izango da. Kasu arraroa (atzerrira eraman beharra) baldin bada, horretan jarduten diren enpresa berezi bat kontratatuko genuke. Bestela, hasieran esan duten bezala, guk geuk egingo genuke zerbitzua, ziur egoteko tresna tailerretik atera den egoera berdinean iritsi dela.
- **Salmenta-kanala:** Salmenta kanala, tailerra berera etorri eta bertan zaborrontzia ikusi eta erosteko aukera izango du edo gure web orritik ere erosi ahal izango dute. Salmenta egin ondoren, urtean behin saldutako tresna ea ongi dagoen ikustera joango gara. Makinariak akatsen bat izango balu, enpresa bera arduratuko litzake akats hori zuzentzeaz.